



# SAISON CULTURELLE

Kultur denboraldia

Théâtre | Musika | Cirque | Dantza

## Gazteentzako antzerki idazketen inguruko formakuntzak (FR)

Honako ikuskizun honi loturik: *Dans ma maison de papier, j'ai des poèmes sur le feu*

Eskuhartzailea: Julien Duval/ zuzendaria /Syndicat d'Initiative konpainia

### Zoom bat gazteentzako antzerki idazketei buruzko ibilbideaz

Stéphane Jaubertie antzerki egilea dugu, hirugarren sasoiz jarraian, gazteentzako antzerki idazketei buruzko so baten konplize artistikoa. Idazketa dinamikoen lantegiak proposatuko ditu ikasgeletan zuzenean. Beste kultura ekintzak (belaunaldien arteko lantegiak, formakuntzak, irakurketak) ere eginen dira gaur egungo antzerki idazleen testu argitaratuen gaineko ikuskizunekin loturik. Ikuskizun horiek, bestalde, Euskal Elkargoaren 21/22 kultura sasoian programatuko dira. Stéphane Jaubertie antzerkigilearekiko elkarlan hori gazteentzako antzerki idazketak argitara emateko *Scène d'enfance - Assitej France* elkarteak daraman nazio mailako asmoaren barnean kokatzen da. So horretatik emanaldi publiko bat sortuko da «Gaur egungo antzerki idazketen lehen ekainean».

"Gazteentzako antzerki idazketak" zorro pedagogiko bat banatuko da irailean, idazketa dinamikoen zikloa egiten ari diren irakasle guzien bilkuran. Zorro horretan 13 obra dira bildurik hainbat unibertso, gai, erritmo eta hizkuntza lantzen dituztenak.

Horren kariatara proposatzen diegu formakuntza bat gazteentzako antzerki errepertorioaren aberastasunak ezagutu nahi dituzten irakasleei. Formatzailea Julien Duval izanen da, *Dans ma maison de papier, j'ai des poèmes sur feu*, ikuskizunaren zuzendaria; obra horren ikustera joanen dira irakasleak beren ikasgelarekin. Formakuntza aldi horren bidez, ikasleak emanaldirako prestatzeko gakoak bilatuko dira. Philippe Dorin-en testuan murgildu eta haren antzerki indarrak ulertu beharko dira, gero hori ikasgelan landu ahal izateko.

**2022ko apirilaren 6an, asteazkenarekin**

**14:00etatik 17:00etara**

**AIEC aretoan - (Albeniz plazabaratzea - 64250 Kanbo)**